

BERTSOPENTSIOTAN

1. bertso jarriaren lehiaketa

Azaroak 15-Urtarrilak 15



pentsionistak aurrera !!!



BERTSOPENTSIOTAN

Aurkezpena eta Helburuak

Pentsiodun anitz gara astelehenero gure herrietako udaletxe aurreko plazetan biltzen garenok, baina askoz gehiago, mugimenduaren helburuekin ados egonik, berau bultzatzeko grina sentitzen dutenak. Horietako asko euskara, kultura eta bertso munduarekin lotura dutenak izaki, propio beraiena izan daitekeen ekimena plazaratzera goaz: **Bertsopentsiotan, Pentsiodunen I. Bertso Jarrien Lehiaketa**.

Astelehenero plazetan biltzen garenon belaunaldiak ez du izan erraztasunik euskaradunak izateko. Batzuei, gurasoen patrimonioa debekatu eta eskoletan gaztelera edo frantsesa inposatu ziguten; beste askori, berriz, berreskuratzeko inolako baliabiderik ez diote eskaini. Ariketa xume hau pentsiodunen mugimenduak euskal kulturari egin nahi dion ekarpena da.

Pentsioen gaia gizarte osoari dagokigun gaia dela ezin da ukatu. Bereziki eta zuzenean guri, baina etorkizunari begira gizarte eredu definitzen duen gako nagusienetakoa da. Gizarte berdinazale baten ardatza. Eta beraz, kultur ekimen berri hau ere pentsioen gaian sakontzeko baliatu nahi dugu; bertsogintza, pentsamendu eta ideia berriak gizarteratzeko baliabide gisara.

Euskararen herri honetako zein diasporako pentsiodun eta 60 urte bete dituzten guztiei zabaltzen diegun gonbidapena da. *Ari garela, ari garela, astelehenero kolean* da gaia eta horretarako propio idatzi ditugun oinarrietan zehazten diren arauen arabera antolatu dugu lehiaketa (oinarriak erantsita doaz). Lehiaketaren sari-banaketa ekitaldi publiko eta zabalaren bidez egingo dugu. Parte-hartzaile guztiak gonbidatuko ditugu eta, sarituen bertsoekin batera, egun puntapuntakoak diren bertsolarien bat-bateko saioaz gozatzeko aukera izango dugu.

LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. Parte-hartzaileak: Euskal Herriko eta diasporako pentsiodun edo 60 urtetik gorako edozein euskaldunak parte hartu ahal izango du bertso jarrien lehiaketa honetan.

2. Gaia: *Ari garela, ari garela, astelehenero kolean*. Alegia, Pentsiodunen Mugimenduak astelehenero aldarrikatzen dituenak izango dira bertso jarrien gaia, bere luze-zabalean.

3. Lana: Gutxienez 3 eta gehienez 6 bertso sortak entregatu beharko dira, neurri librean eta, ahal dela, erabilitako doinua zehaztuta. Bertso-sortak izango dira, hau da, lotura argia daukaten bertsoz osatutako lanak.

4. Bidalketa moduak:

a. Posta arruntaz bidaltzeko, jatorrizko bertso-sorta izenburu batekin eta ezizenez sinatuta gutunazal handi baten sartuko da, egilearen datuak (izen-abizenak, herria eta kontakturako e-mail eta telefono zenbakia) jasoko dituen gutunazal txikiago batekin batera. Gutunazal txikiaren kanpoaldean sortaren izenburua edo egilearen ezizena idatzi. Helbidea: 20 posta-kutxa, Iurreta 48215 (Bizkaia).

b. Posta elektronikoz bidaltzeko aukera ere izango da. Horretarako, bi korreo bidali beharko dira: batean bertso-sorta izenburuarekin eta ezizenez sinatuta jasoko dituen dokumentua (PDF formatuan, ahal dela); eta bestean, sortaren izenburuari edo ezizenari

dagozkion datuak, hau da, izenabizenak, herria eta kontakturako telefono zenbakia. Posta-helbidea: bertsopentsiotan@gmail.com.

5. **Epea:** Bertsoak bidaltzeko azken eguna 2024ko urtarrilaren 15a, astelehena, izango da.

6. **Sari-banaketa:** Lehiaketaren sari-banaketa aurrerago jakinaraziko den ekitaldi publiko eta zabalaren bidez egingo da. Ez da diru-saririk izango. Parte-hartzaile guztiak gonbidatuta egongo dira eta sarituek euren bertsoak kantatzeko aukera izango dute.

Oharra: lanen jabetza Pentsiodunen

Mugimenduarena izango da, baina lehiaketa honi dagozkion komunikazio-ekimenetatik at egin daitezkeen bestelako erabileretarako bertsoen egilearen baimena eskatuko da aurrez.

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua



Euskal Herrian 2023ko Urriaren 3a